

ITUREN eta ZUBIETAKO INAUTERIAK

ITUREN

Otsailaren 1ean, astelehenean, hasi ziren Iturenen inauteriak. Lehengo, Latsaga auzora joan ginen joaldunak nola janzten ziren elkartean ikusteko. Gero, Iturenera joan ginen, eta bertan bazkaldu genuen. 15.00ak aldera, joaldunak plazara etorri ziren eta bertan ikuskizuna gauzatu zuten. Ondoren, joaldunak herritik bueltaka hasi ziren, bitartean herriko gazteak guregana urbidu ziren motozerrekin, animalia hilekin... Jarraian, herritarrek egindako karrozak ikusi genituen eta ordu bat igarota, autobusa hartu genuen Donostiaruntz.

ZUBIETA

Otsailak 2, goizean, Ituren herrian autobusak utzi gintuen. Egun hartan, inauteriak Zubietan ziren. Iturenetik Zubietara, oinez joan ginen. Ibilbidearen erdian, Aurtitz auzoan, hamaiketakoa egin genuen. Iristean, bi gazte zirikatzen ari ziren gorosti adarrekin. Ordu batzuk pasata, mutil gazte batzuk etorri ziren: batzuk azeri hilekin, beste batzuk untxi hilekin, katu hilekin...

Azkenik, gazte batzuk kotxe baten gainean kotxea kolpatzen. Bitartean, joaldunek herritik buelta batzuk eman zituzten.